PIRINIO ALDEKO NAFARROA

Nafarroa garaiko mendiak ipar-ekialdean daude eta 2.000 metrotik (Hiru Erregeen Mahaia 2.434 m, Arlas 2044 m, Ezkaurre 2.046 m, Ori 2.021 m. eta Anie, Frantziako mugan, 2.507 m).

Nafarroako Pirinioaren bereizgarri hoberena flysch delakoa da, argiro kareharriz osatua, nahiz eta tufarriezkin nahasita. Tufarri-kareharrizko flysch horrek higadura gogorra izan du eta forma leunak sortu, zeinen artean kareharrizko goruneak nabarmentzen diren.

Nafarroako ipar-ekialdeko muturrean Larrako karsta dago, Europako karstik aipagarrienetakoa, bertako kareharriak lodiera handikoak baitira eta horren ondorioz pasillo, harpe, leze, lapiaz eta lurpeko ibai ugari daude karstaren barrenaldean.

Pirinioetako garaiera beheraka doa Ekialdetik mendebaldera goazen neurrian eta Erro, Urrobi, Irati, zaraitzu eta Eska ibaiek mmozten dituzte, trebeska, mendiok. Hortik zintzur edo harrate sakonak sortzen dira, hala nola Mintxatekoa, Burgikoa, Arbaiungoa...

BELABARZE (nafarroako Pirinioa)

Foto cedida por Diario de Navarra

Foto cedida por Diario de Navarra

ORI MENDIA2.021 m.

NAFARROA-ARAGOIKO GOI PIRINIOA

Foto cedida por Diario de Navarra

Foto cedida por Diario de Navarra

EZKAURREKO HAITZA

LARRAKO KARSTA

Foto cedida por Diario de Navarra

PIRINIO-AURREKO MENDILERROAK

Erreniega 1.097 m, Alaitz (Eloko Higa 1.289 m), Izko 1.033 m eta Leire (Arangoiti 1.355 m) dira. Faila itxurako tolesturak dira, hego aldera irauliak. Pirinio geologikoaren muga dira.

Erreniega, Iruñerritik hego aldera, Jaizko diapirotik Alaizko mendiraino joaten da. Konglomeratuz eta kare- nahiz hareharrizko ibai-harriz egina dago.

Alaitz mendia, bera ere Iruñerritik hego aldera, itsasoko jalkin harriz egina da, gehienbat tertziarioko kareharriz; gaur egun harri hori eraikuntzarako erabiltzen da. Mendilerro honen mutur batean Eloko Higa delakoa dago eta bestean Untzueko haitza. Bi mendilerroen artean Artederretako (Carrascal) ateka dago.

Izko mendia, Irunberri-Agoitz arroaren hegoaldean dago. Bertako gorunerik handiena Antxurda da (1.038 m). Izkoko haitzak tertziarioko hareharriz eta buztinez eta ibai-jalkinezkoz osatuta daude.

Leireko mendia, Jacarako errepidetik ikusita haitz-gailur handia da, alderdi laua I aldera eta alderdi malkarra H aldera dituena. Hertsiki, ez daiteke esan Izko mendia itsasoko jalkin harrien eta jalkin harri kontinentalen arteko muga geologikoa denik, hegoalderago ere bai baitaude itsas tufarriak, Verdúngo kanalean zabalagotzen direnak. Gorunerik handiena Arangoiti da.

ERRENIEGA

ERRENIEGA

ALAITZ

ELOKO HIGA 1289 m

ELOKO HIGA 1289 m

UNTZUEKO HAITZA990 m

IZKOKO MENDIA

ITZAGA MENDIA 1.353 m atzealdean

LEIREKO MENDIA LOITIKO gainetik

LEIREKO MENDIA ESATIK IKUSITA

PIRINIO-AURREKO ARROAK

Iruñerria eta Irunberri-Agoitz arroa Nafarroaren bihotzean daude eta Pirinio-aurrea osatzen dute. Bi arrook 500 m inguruko altitude batez bestekoa dute.

Pirinioen eta kanpoaldeko mendilerroen artean daude. I aldetik Pirinioko ibarrak dituzte itxigarri, eta H aldetik Erreniega, Alaitz eta Izko mendilerroak; M aldetik, berriz, Sarbil eta Andiako ekialdea, eta Etik Leire mendia.

Arga da Iruñerriko ibaia eta Irati, berriz, Irunberri-Agoitzekoa.
Bi arrook gris-urdin koloreko tufarri tertziarioak dituzte osagai, Arga eta Irati ibaiek higatutakoak. Ibaiok kuaternarioko jalkin geruza bat utzi dute tufarri horien gainean.

Irunberri-Agoitz arroan *bandlands* direlakoak ugari daude(badlands= lur txarrak) : tufarri-landak dira, landarerik gabekoak, higaduragatik errekazuloz josiak.

Iruñerrian errekazulo gutxiago daude tufarrietan Irunberri-Agoitzen baino. Horren arrazoia izan daiteke Iruñerria hezeagoa eta landare gehiagokoa dela. Iruñerrian Itzagako sinklinal zintzilikatua nabarmentzen da salbuespen gisa, tertziarioko jalkin material kontinentalez osatua.

IRUÑERRIA

IRUÑERRIA. ERRENIEGA

IRUÑERRIA. SAN KRISTOBAL

IRUÑERRIA

IRUÑERRIA ALAIZ

IRUÑERRIA

IRUÑERRIA. ETXAURI IBARRA

IRUNBERRI-AGOIZKO ARROA

IRUNBERRI AGOIZKO ARROA

IRUNBERRI-AGOIZKO ARROA

IRUNBERRI-AGOIZKO ARROA

IRUNBERRI-AGOIZKO ARROA

IRUNBERRI-AGOIZKO ARROA

BADLANDS. IRUNBERRI-AGOIZKO ARROA